



2022-23 ikasturteko memoria

012581 - Goierri Eskola Zentru Integratua

013541 - Goierri Eskolako Batxilergoa

An abstract graphic consisting of several overlapping, semi-transparent, light blue and grey geometric shapes, resembling a stylized building or a series of connected planes.

2023ko uztaila

AURKIBIDEA

1. Urteko Plana	4
1.1. Hezkuntza arautua	4
1.1.1. Taldeen kopurua eta sailkapena	4
1.1.2. Egutegia.....	5
1.2. Lanerako eta etengabeko Hezkuntza	5
2. Erakundearen egitura.....	8
2.1. Gela eta Baliabide materialak.....	9
2.2. Giza baliabideak.....	9
2.3. PROZESUEN JARDUERA	13
Kokapen Estrategikoa	13
Pertsonen kudeaketa.....	13
Merkatuko definizio eta kokapena.....	15
Hasierako Hezkuntza	16
Lanerako eta Etengabeko Hezkuntza	17
Baliabide Ekonomikoen kudeaketa	18
Baliabide eta Aktiboen Kudeaketa	19
Komunikazioa.....	20
Berrikuntza.....	20
3. Bezeroenganako Emaitzak.....	22
3.1. Hezkuntza Arautua.....	22
3.1.1. Matrikulazioaren emaitzak.....	22
3.1.2. Hezkuntza Arautuko emaitzak.....	22
3.1.3. Grebak.....	23
3.1.4. Satisfazioa.....	23
3.1.4.1. Hezkuntza Arautuko ikasleen satisfazioa	24
3.1.4.2. Familien satisfazioa.....	24
3.1.5. Lanean txertatzea	26
3.2. Hezkuntza ez arautua.....	27
3.2.1. Kurtsoen kopurua	27



3.2.2. Hezkuntza ez arautuko ikasleen satisfazioa.....	28
4. Pertsonenganako emaitzak	29
4.1. Pertsonen satisfazioa	29
5. Eskola Kontseilua	30
5.1. Bilerak.....	¡Error! Marcador no definido.
6. Orientazio zerbitzua	30
6.1 LANBIDE - KOLOKAZIOA.....	¡Error! Marcador no definido.
6.2 ENPLEGU ORIENTAZIOKO EUSKAL ZERBITZUA (LANBIDE – ORIENTAZIOA) eta INEM ORIENTAZIOA ¡Error! Marcador no definido.	
6.3 ENPLEGU ZENTROA	¡Error! Marcador no definido.
6.4 INCORPORA PROGRAMA	¡Error! Marcador no definido.
6.5 LEHENTASUNEZKO KOLEKTIBOAK LAN MUNDUAN SARTZEKO DITUZTEN ZAILTASUNENGATIK... ¡Error! Marcador no definido.	
7. COVID 19-aren eragina	¡Error! Marcador no definido.



1. URTEKO PLANA

1.1. HEZKUNTZA ARAUTUA

1.1.1. TALDEEN KOPURUA ETA SAILKAPENA

2022-2023 kurtsoarako, ondorengo taulak jasotako talde kopurua izan ditugu:

Maila	Kurtsoa	Talde kopurua	Banaketa
OLH FPB	1	4	Mekanizazioa Ibilgailuak konpontzea: Elektromekanika Ibilgailuak konpontzea: Karrozeria Sukaldaritza
	2	4	
EMHZ	1	4	1 Soldadura eta galdaragintza 1 Mekanika 1 Mantenu elektromekanikoa 1 Menpek. egoeran dauden pertsonen arreta
	2	4	1 Soldadura eta galdaragintza 1 Mekanika 1 Mantenu elektromekanikoa 1 Menpek. egoeran dauden pertsonen arreta
GMHZ	1	7	1 Administrazio eta finantzak 1 Diseinua fabrikazio mekanikoan 1 Mekatronika industriala 1 Metal Eraikuntzak 2 Fabr. Mek. produkzioaren programazioa 1 Automatizazio eta robotika industriala
	2	7	1 Administrazio eta finantzak 1 Diseinua fabrikazio mekanikoan 1 Mekatronika industriala 1 Metal Eraikuntzak 2 Fabr. Mek. produkzioaren programazioa 1 Automatizazio eta robotika industriala
Batxilergoa	1	3	Zientzia eta teknologia Batxilergoa 2 Batxilergo orokorra 1 (LOMLOE)
	2	2	Zientziak Batxilergoa (LOMCE)

1.1.2. EGUTEGIA

Hezkuntza arautuaren jarduerari dagokionez, honako egutegia onartu zen:

Egun lektiboak	165
Kurtsoaren hasiera	Irailaren 7-tik
Kurtsoaren amaiera	Ekainaren 22ra
Jai egunak:	✓ Urriak 12, 31 ✓ Azaroak 1 ✓ Abenduak 6, 8, 9 ✓ Gabonetako Oporrak: Abenduak 24-Urtarrilak 8 ✓ Otsailak 20 ✓ Aste Santuko Oporrak: Apirilak 03-16 ✓ Maiatzak 22-23 (Beasaingo jaiak)

1.2. LANERAKO ETA ETENGABEKO HEZKUNTZA

Ondorengo taulak lanerako eta etengabeko hezkuntzari buruzko informazioa bildu du: aurreikusitako kurtsoen antolaketa, iraupena eta datak, prezioa eta gauzatze - maila.


IKASTAROA	Iraup.	Data	Ordutegia	Prezioa	Gauzat.
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK / ADMINISTRACIÓN Y FINANZAS					
Soldata ordainsarien eta segurantzaren kudeaketa Gestión de nóminas y seguros sociales	80	2023/04/17 2023/06/26	18:30-21:00	---	☐
AUTOMATIZAZIOA ETA MAKINA ELEKTRIKOAK/AUTOMATIZACIÓN Y MAQUINAS ELECTRICAS					
Hiraulika Hidráulica	40	2023/03/06 2023/03/30	18:00-20:30	---	☒
TIA PORTAL Programazioa Programación TIA PORTAL	40	2023/03/06 2023/03/27	18:00-21:00	---	☐
Oinarritzko elektrizitatea Electricidad básica	20	2023/04/24 2023/05/08	18:00-20:30		☐
Robotika Robótica	40	2023/05/15 2023/06/13	18:00-20:30	---	☐
Mantenu elektromekanikoa Mantenimiento electromecánico	50	2023/05/24 2023/06/21	18:00-21:00	---	☒
FABRIKAZIO MEKANIKOA / FABRICACIÓN MECÁNICA					
Fanuc CNC Tornoaren programazioa eta exekuzioa Programación y ejecución en torno CNC Fanuc	35	2023/05/15 2023/06/08	18:00-20:30	---	☐
Ohiko torneaketa prozesua. Oinarritzkoa Proceso de torneado convencional. Básico	40	2023/05/15 2023/06/08	18:00-21:00	---	☐
Heidenhain CNC fresatzeko makinaren programazioa eta exekuzioa Programación y ejecución en fresadora CNC Heidenhain	40	2023/05/15 2023/06/13	18:00-20:30	---	☐
4.o INDUSTRIA/INDUSTRIA 4.o					
Material polimeriko eta metalikoen 3D inpresioa – Fabrikazio aditiboa Impresión 3D de materiales poliméricos y metálicos – Fabricación aditiva	30	2023/04/21 2023/05/26	08:00-13:00	---	☐

IKASTAROA		Iraup.	Data	Ordutegia	Prezioa	Gauzat.
	PLANOEN INTERPRETAZIOA ETA INDUSTRI DISEINUA/INTERPRETACIÓN DE PLANOS Y DISEÑO INDUSTRIAL					
Bisten/ebakiduren I planoen interpretazioa Interpretación de planos I vistas/cortes		40	2023/01/16 2023/02/09	18:30-21:00	---	✗
CAD 3D Modelaketa, eta planoak (Solid Works) CAD 3D Modelado y planos (Solid Works)		40	2023/01/23 2022/02/16	18:30-21:00	---	✓
Galdaragintza eta eraikuntza metalikoetako planoen interpretazioa Interpretación de planos de calderería y estructuras metálicas		50	2023/02/27 2023/03/30	18:30-21:00	---	✗
3D Experience (Catia) 3D Experience (Catia)		40	2023/05/15 2023/06/13	18:30-21:00	---	✗
	BULEGOTIKA/OFIMATICA					
Excel 1.maila Excel nivel II		30	2022/09/26 2022/10/14	16:00-19:00 18:00-21:00	---	✗
Excel administrazioan aplikatua Excel aplicado a la administración		40	2023/05/08 2023/06/06	15:30-18:00 18:30-21:00	---	✗
	SOLDADURA / SOLDADURA					
TIG soldadura era horizontalean Soldadura TIG en posición horizontal		60	2023/02/13 2023/03/21	18:00-21:00	---	✓
Fanuc soldadura robota Robot de soldadura Fanuc		35	2023/04/17 2023/04/27	15:00-19:30	---	✓
Elektrodo bidezko soldadura era horizontalean Soldadura con electrodo en posición horizontal		60	2023/05/02 2023/06/07	18:00-21:00	---	✗
	KUDEAKETA / GESTIÓN					
ISO14001:2015 arauaren arabera ingurumen kudeaketa sistema baten ezarpena Implantación de sistemas de gestión medioambiental según la norma ISO14001:2015		20	2023/02/06 2022/02/16	17.30-20:00	---	✗
ISO9001, ISO14001 eta ISO45001 arauen arabera kudeaketa sistema integratua Sistema de gestión integrado según requisitos de las normas ISO9001, ISO14001 e ISO45001		24	2023/02/06 2023/02/23	17:30-20:00	---	✗
CURSO AVANZADO GESTIÓN INDUSTRIAL		168	2023/02/15 2022/10/13	15:30-19:30	4365€	✓
ISO45001: 2018 Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistema (SGSST) ISO45001: 2018 Sistemas de gestión de la seguridad y salud en el trabajo (SGSST)		8	2023/03/27 2023/03/30	17:30-20:00	---	✗
	ENTSEGU EZ SUNTSITZAILEAK / ENSAYOS NO DESTRUCTIVOS					
Ultrasoniak 2.maila Sarbide Zuzena Ultrasonidos nivel 2 acceso directo		144	2022/09/19 2022/10/21	08:00-14:00	3255€	✓
Ikuskapen bisuala 2.Maila Sarbide Zuzena Inspección Visual Nivel 2 Acceso Directo		44	2022/09/19 2022/10/03	10:00-14:00	710€	✓
Likido Sarkorrak 2.Maila Sarbide Zuzena Líquidos Penetrantes Nivel 2 Acceso Directo		40	2022/10/17 2022/10/28	10:00-14:00	650€	✓
Partikula Magnetikoak 2.maila Sarbide Zuzena Partículas Magnéticas Nivel 2 Acceso Directo		48	2022/10/17 2022/11/08	15:00-19:00	775€	✓
Ikuskapen bisuala 2.Maila Sarbide Zuzena Inspección Visual Nivel 2 Acceso Directo		44	2023/01/16 2023/01/30	10:00-14:00	710€	✓
Partikula Magnetikoak 2.maila Sarbide Zuzena		48	2023/01/31	15:00-19:00	775€	✓

IKASTAROA	Iraup.	Data	Ordutegia	Prezioa	Gauzat.
Partículas Magnéticas Nivel 2 Acceso Directo		2023/02/22			
Likido Sarkorrak 2.Maila Sarbide Zuzena Líquidos Penetrantes Nivel 2 Acceso Directo	40	2023/02/06 2023/02/17	10:00-14:00	650€	☑
Ultrasoinuak 2.maila Sarbide Zuzena Ultrasonidos nivel 2 acceso directo	144	2023/02/06 2023/03/10	08:00-14:00	3255€	☑
Ikuskapen bisuala 2.Maila Sarbide Zuzena Inspección Visual Nivel 2 Acceso Directo	44	2023/05/29 2023/06/13	15:00-19:00	710€	☑

2. ERAKUNDEAREN EGITURA

Ondorengo diagramak Goierri Eskolako egitura azaldu du, bezeroenganako orientazioa, Kudeaketa Unitateetako antolaketa eta prozesuen bidezko kudeaketa bertan agerian jarri direlarik:



Antolaketaren gailurrean bezeroak ditugu (ikasleak, familiak, enpresak, eta abar) eta hauekin harreman zuzenean Kudeaketa Unitateetan banaturiko irakasle eta ez – irakasleak. Guzti hauen beharrei erantzuteko prozesu multzoa dugu. Prozesu hauetako arduradunek Zuzendaritza osotzen dute. Urteko Planen garapena prozesu hauen bitartez egiten da eta haiek lortutako emaitzak Kokapen Estrategikora bideratzen dira Plan eta Estrategia berriak defini ditzan.

Aipatu antolaketak hiru helburu hauek ditu:

- Bezeroen beharrei modurik egokienean erantzun.
- Lidergo partekatua garatu, pertsona bakoitzak bere zereginaren erantzule izanik eta erabakiak hartzeko askatasuna bermatuz, beti ere arau, plan eta prozesuek diotena bermaturik.
- Prozesuen bitartez Helburu Estrategikoen hedapena ziurtatu.

2.1. GELA ETA BALIABIDE MATERIALAK

Aipatu aktibitate guzti horri aurre egiteko, ondorengo azpiegituraz baliatu ginen:

Baliabideak	Kopurua	Oharrak
Gela Arruntak	28	
Informatikako Gelak	7	6 CAD-CAM, CATIA, CNC. 2 Automatismoak.
Metrologia laborategia	1	
Soldadura laborategia	2	1 Ultrasoinuak. 1 partikula magnetikoak
Mekanikako tailerrak	3	1 Mantenimendua, 1 CNC, 1 tailer konbentzionala
Soldadura tailerra	1	
Galdaragintzako tailerra	2	
Elektrizitateko tailerra	2	
Neumatika/hidrauliko tailerra	1	
Mediateka	1+3	1 talde lanetarako gela handi. 3 talde lanetarako gela txiki.
Mediateka informatika	1	15 PC + 3 PC eramangarri
Areto Nagusia	1	165 lagunentzako
Bilera gelak	3	
Bilera gelak	11	
Gela inmersiboa	1	
Gela interaktiboa	1	
Eduki digitalak sortzeko gela	1	
Gela aurreratua	1	

2.2. GIZA BALIABIDEAK

Aurreko aktibitatea gara ahal izateko ondorengo giza baliabideak aurreikusi ziren:

Taldea	Kopurua	Azpitaldea	Kopurua
Irakasleak	58		
Ez irakasleak	12	Idazkariak	3
		Mantenimendua	2
		Mantenimendu informatikoa	1
		Administrazioa	2
		Orientazio eta enplegu zerb.	3
		Harrera	1

Eta pertsona horiek horrela antolatu ziren Kudeaketa Unitateetan:

Kudeaketa Unitatea	Pertsonak	Kargua
Oinarrizko Lanbide Heziketa	Eguzkiñe Plazaola	Unitate Burua
	Maite Erauskin	Irakaslea
	Imanol Aranburu	Irakaslea
	Iñaki Mauleon	Irakaslea
	Mikel Urteaga	Irakaslea
	Axel Mendiluze	Irakaslea
	Pedro Angel Llamas	Irakaslea
	Itxaso Orbegozo	Irakaslea
	Aitor Garcia	Irakaslea
	Asier Ibrain	Irakaslea
	Ane Bereziartu	Laguntzailea ZIG
Administrazio eta Finantzak	Miren Ojanguren	Unitate Burua
	Angel Eguren	Irakaslea
	Goyi Gozalo	Irakaslea
	Lorea Garitagoitia	Irakaslea
	Hodei Sagarzazu	Irakaslea
	Ainhoa Larrea	Irakaslea
	Maider Mora	Irakaslea
	Alicia Gómez (GG)	Irakaslea
Elektrizitatea	Iñigo Palomo	Unitate Burua
	Eneko Mujika	Irakaslea
	Joseba Barandiaran	Irakaslea
	Iñaki Kortaberria	Irakaslea
	Iñaki Zabalo	Irakaslea
	Estebe Ormazabal	Irakaslea
Eraikuntza metalikoak	Adur Leunda	Unitate Burua
	Mikel Iparragirre	Irakaslea
	Peio Etxezarreta	Irakaslea
	Miren Iartza	Irakaslea
	Xabier Zunzunegi	Irakaslea
	Jon Etxezarreta	Irakaslea
	Jon Leunda	Irakaslea
	Mikel Agirre	Irakaslea

Kudeaketa Unitatea	Pertsonak	Kargua
Mekanika	Miguel Angel Cestau	Unitate burua
	Kattalin Beitia	Irakaslea
	Haritz Erauskin	Irakaslea
	Juan Cruz Eceiza	Irakaslea
	Jose Manuel Hernandez	Irakaslea
	Mikel Arizkorreta	Irakaslea
	Joseba Iztueta	Irakaslea
	Xabier Alberdi	Irakaslea
Ingeniaritza	Jose Ignacio Vicente	Unitate burua
	Ramon Aldanondo	Irakaslea
	Aitor Zuriarrain	Irakaslea
	Jon Otegui	Irakaslea
Batxilergoa	Idoia Otaegui	Unitate Burua
	Joseba Ramos	Irakaslea
	Jose Ignacio Insausti	Irakaslea
	Josebe Telleria	Irakaslea
	Jon Aranburu / Julian Olano	Irakaslea
	Amaia Cerdán	Irakaslea
	Xabier Molina	Irakaslea
	Leire Bujanda	Irakaslea
Orientazioa	Mikel Azkarate	Orientatzailea
Zuzendaritza	Carlos Ormazabal	Fundazioko Gerentea
	Jorge Mancisidor	Zuzendaria
	Mikel Azkarate	Haserako Hezkuntzako Ard.
	Luis Alberto Aramburu	Lanerako eta Etengabeko Hezkuntzako Ard./Idazkaria
	Iker Etxezarreta	Praktiketako Arduraduna
	Jose Mari Alkorta	Kanpo harremanetarako arduraduna
	Juanjo Igarzabal	Berrikuntza arduraduna
	Alazne Ormazabal	Administrazioko arduraduna

Zuzendaritza kontseilua	Idoia Otaegui	Unitate Burua
	Eguzkiñe Plazaola	Unitate Burua
	Adur Leunda	Unitate Burua
	Miren Ojanguren	Unitate Burua
	Iñigo Palomo	Unitate Burua
	Miguel Angel Cestau	Unitate Burua
	Estitxu Urkia	Unitate Burua
	Jose Ignacio Vicente	Unitate Burua
	Luis Alberto Aramburu	Kalitate Arduraduna/Idazkaria Ez Arautuko Arduraduna
	Alazne Ormazabal	Arduradun Ekonomikoa
	Mikel Azkarate	Hasierako Hezkuntza arduradu
	Jorge Mancisidor	Zuzendaria
	Jose Mari Alkorta	Kanpo harremanetarako ardur
	Juanjo Igarzabal	Berrikuntza arduraduna
	Iker Etxezarreta	Praktiketako Arduraduna
	Carlos Ormazabal	Fundazioko Gerentea
	Xanti Iruretagoiena	Ikaslango Zuzendaria
Eskola Kontseilua Lanbide Heziketa	Zentro Integratua izanik, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik eskatu ziguten Kontseilu Soziala oraindik ez eratzeko, itunpeko ikastetxeetako Kontseilu Soziala arautu behar duen dekretua argitaratu arte. Ikasturte osoa joan da eta oraindik ez da argitaratu.	Gurasoen ordezkaria
		Gurasoen ordezkaria
		Gurasoen ordezkaria
		Ikasleen ordezkaria
		Ikasleen ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Ez irakasleen ordezkaria
Eskola Kontseilua Batxilergoa	Jorge Mancisidor	Zuzendaria
	Luis Alberto Aramburu	Idazkaria
	Iñigo Palomo	Gurasoen ordezkaria
	Arantxa Arozena	Gurasoen ordezkaria
	Gorka García Etxeberria	Ikasleen ordezkaria
	Oinatz Goikoetxea Otegui	Ikasleen ordezkaria
	Kepa Zuriarrain	Titularraren ordezkaria
	Adur Ezenarro	Titularraren ordezkaria
	Mikel Plazaola	Titularraren ordezkaria
	Joseba Ramos	Irakasleen ordezkaria
	Josebe Telleria	Irakasleen ordezkaria
	Jose Ignazio Insausti	Irakasleen ordezkaria
	Idoia Otaegi	Irakasleen ordezkaria
	Aitor Iturrioz	Ez irakasleen ordezkaria

2.3. PROZESUEN JARDUERA

Ondorengoek prozesu bakoitzaren jarduerak eta hurrengo ikasturterako aurreikuspenak laburbildu dute:

2.3.1. KOKAPEN ESTRATEGIKOA

Estrategia, urteko planak eta adierazleen kudeaketarako SIP erreminta berria martxan jarri dugu ikasturte honetan. Aplikazioa gurea egokitzen aritu behar izan behar badugu ere, erantzun azkarra jaso izan dugu gaurkotzerakoan eta arazo handirik gabe inplantatu dugu.

Ikasturte honetako alderdirik berriena, eskaintzaren aldaketa izan da. Sailburu ordetzak eskatuta, gure eskolako eskaintzan goi mailako bi ziklo berri sartu ditugu (“Plataforma anitzeko aplikazioen garapena” eta “ Web aplikazioen garapena”) eta beste bi espezializazio ikastaro (“Fabrikazio gehigarria” eta “Trenbideetako gurpildun materialaren mantentze lan aurreratua”). Horretaz gain, batxilergoan hirugarren lerroa ireki dugu.

Guzti honek, ziklo berri hauetarako baimenak eskatzera eraman gaitu, baliabide eta espazioak prestatu, irakasle beharrak aurreikusi eta ziklo hauen eskaintza plazaratu. Trenbideko espezializazio ikastaroan errege dekretua besterik ez dago publikatuta eta, ondorioz, IVAF-ekin batera EAE-ko dekretua diseinatzera ekin diogu. Horretarako, CAF eta Euskotren enprekin lanean ari gara. Espero dugu diseinua azarorako bukatuta egotea. Hala ere, espezializazio ikastaro honen aurrematrikulak 3 bakarrik izan direnez, ez dugu azkenean eskaintzan kontuan hartu irailerako. 2024 urterako landu beharko dugu.

Ingeniaritzan, “Fabrikazio gehigarria industrial” masterrean aurtan ez dugu nahiko matrikula izan, eta ikasturtean zehar honen merkaturatzean lanean aritu gara. Era berean, IWE + END etan oinarrituriko beste master bat diseinatzen aritu gara Lortek eta MU-rekin batera.

Zentru Integratua garenez, Tknikaren laguntzaz Ikastetxeen Egitura Berrietako prozeduran jarraitu dugu hirugarren ikasturtez, COP guztietan parte hartuz. Aipatzekoa da Tknikaren partetik prozesu mapa berri baten proposamena jaso dugula ikastetxeek. Horrek hausnarketa batetara eraman gaitu eta ikasturte bukaeran Goierri Eskolako prozesu mapa berria lantzen aritu gara. 23/24 ikasturtean prozesu berrien diseinua eta dokumentazio guztiaren garapena burutzeko aldaketa plan bat egin beharko dugu.

LEHko eskaintza neurrirako eskaintzara bideratzeko ahalegin desberdinak egiten jarraitu dugu. Goierri Valley-rekin dugun hitzarmenaren arabera, hauekin planifikatutako formazio ekintza batzuk burutu ditugu. Ikasturte honetan inkesta bat pasa diegu Goierri Valley-eko enpresei formazio beharrei buruz. Inkesta honen emaitzak kontuan hartuta, planifikazio bat burutu dugu datorren ikasturtean eskaintzeko kurtsoekin. Goierri Valley-ek dituen lan taldeetan eskolako ordezkari bat izateko bidea ere jarri dugu. Oraingoz, komunikazio taldeko bileran bakarrik parte hartu dugu.

SEAS-en bitartez Somorrostrorekin egindako eskaintzaren irteera atzeratzen joan da, eta dagoeneko irailaren 18rako kurtsoak plazaratzeko fetxa dugu. Horretarako lan taldeak osatu ditugu Somorrostro eta gure artean, kurtsoen kostea eta prezioak kalkulatzeko, kurtsoen egitura gaurkotzeko, eta hauen komertzializaziorako.

Txiletar ministerioarekin ere kontaktua mantendu dugu, baina esan digutenez, 2025 urtera arte behintzat ez da programa abian jarriko. Goierri Valley-eko “misio” bat aprobetsatuz, MDK-ko arduraduna Txilen egon zen apirilan bertako zentro desberdinekin kontaktuak eginez eta bide batez bertan ditugun kontaktuak bisitatzeko.


Dual proiektuen instruktoreen formazioan parte hartzen ari gara Adegí eta Sailburuordetzarekin batera. Honekin batera, Dual sistema berria ere mantendu da da aurtan, goi mailako talde guztiak parte

hartu dutelarik. Balorazio positiboa izan du parte guztien aldetik. Orain uztalean onartu da Lanbide Heziketako errege dekreto berria eta honek markatuko digu dual orokorra eta espezifikoak.

Lidergoari buruz, garapen elkarriketak egiteko prozedura gaurkotu egin da zuzendaritza kontseiluan. Eskolako lan taldeen egitura ere optimizatu nahian azterketa bat egin dugu.

2.3.2. PERTSONEN KUDEAKETA

Prozesu honetako helburu gehienak, pertsonalaren satisfazioarekin erlazionatuta daude. Honekiko geneuzkan helburuak lortu izan dira. Aurreko urtekoarekiko, honela aldatu dira:



Prozesuaren helburuekiko, Formazio plana aurkezteko eta lehentasunen arabera erabakiak hartzeko prozesura mantentzen da eta Zuzendaritza Kontseiluan berriro ere azaldu eta aplikatu da. Inbertsioekin egiten dugun moduan, Prozesu eta KU-etako eskaera guztiak jasotzen dira formulario baten bitartez eta Zuzendaritza Kontseiluan lehentasunen arabera urteko plana onartu da.

Eragiketen kontrola aplikazioa ere mantentzen da, Formazio Planen eraginkortasunaren ebaluazioa egin ahal izateko eta pertsonen satisfazio maila formazioarekiko adierazteko. Eragiketen kontrolerako erabiltzen dugun aplikazioa berritzeko irizpideak ere landu dira. Aplikazioa berritzeko prozedura martxan jarri da, eragiketen kontrola egiteko aplikazio eraginkorrago bat izateko, baina oraindik ez dugu bertsio berria. 23/24 ikasturtean aplikatu nahiko genuke.

Ikerkuntza proiektuetan parte hartzea izatea lortu dugu, eta proiektu berrien kudeaketan, pertsonalaren inplikazioa areagotzea ere lortu dugu, MEC proiektuetan parte hartu dugularik. Tknikako proiektuetan aurten inoiz ez bezala proiektu gabe geratu gara, eskatutakoetatik bat bakarra ere eman ez dugutelarik. 23/24 ikasturterako, Tknikako proiektu bat eman digute. Bestetik, internazionalizazio programak ere martxan jarri dira, irakasleen arteko mobilitadeak burutu dira eta batxiengoan 3 elkartrukaketa burutu dira. Esloveniakin bi eta Begikarekin beste bat.

Lanerako eta Etengabeko Hezkuntzan, espezialista sarea izateko bilaketarekin ari gara. Egia da lortzen ditugula momentuko irakasleak baina sarea zabaltzen eta egonkortzen jarraitu beharrean gaude, END eta Elektrizitateko arloetan bereziki.

Aurten Tknikaren eskutik Ikastetxeen Eredu Berrian parte hartzen jarraitu dugu, zuzendaritzako postu berriei egokituz. Zuzendari Exekutiboaz gain, beste kargu "ofizial" batzuk izendatu ditugu: Estrategi Zuzendaria, Berrikuntza Zuzendaria, Zuzendari Operatiboa, Aldaketaren Kudeatzailea eta Sistemen Arduraduna. Hauen funtzio eta zereginaz gain, bakoitzaren taldea eta erlazioa definitzen aritu gara Tknikako jarraibideak kontuan hartuz. Horretarako formazio/informazio saio asko izan ditugu.

Erakundearen Autoebaluaketa bat burutu dugu eta hobekuntza eremuak adierazi. Tknikak bideratu bezala, prozesu mapa ere aldatzera goaz, eta horretarako hasierako hausnarketa burutu dugu. 23/24 ikasturtean zehar aldaketa plana jarraituz dokumentazio guztia moldatu beharko dugu.

Azkenik, arrisku Psikosozial arloan ere diagnosia hartu eta urteko planean ekintza desberdinak burutu dira honen ondorioz.

2.3.3. MERKATUKO DEFINIZIO ETA KOKAPENA

Arlo finantzarioan, lanbide heziketan, aurtuen eskaintza berria ezartzeko aukera izan dugu. Informatika alorreko goi mailako bi ziklo berri eskaini ditugu, eta espezializazio-ikastaroak ere lehen aldiz eskaintzeko aukera ere izann dugu.

- Informatikan, goi mailako “Web orrialdeen garapena” eta “Multiplataforma garapena” izeneko zikloak eskaini dira. Eskaera kopuru desberdina jaso da eta, multiplataformakoa aurrera aterako bada ere, ikusteke dago zer gertatuko den web garapeneko zikloarekin (iraileko matrikulazio datuen baitan).
- Espezializazio-ikastaroei dagokionez, bi ikastaro eskaintzeko aukera izan dugu. Bata “Fabrikazio Aditiboa”-rena eta bestea “Trenbideetako gurpildun sistemen mantenimenduari” dagokiona. Aurrematrikula epean izandako datuak aztertu ondoren, Fabrikazio Aditiboa-rena bakarrik gauzatuko da. Bestea, 24/25 ikasturtean martxan jartzen saiatuko gara.

Guzti hori kontutan izanik, matrikulazio kopuruak gora egin du lanbide heziketan. Matrikulazio datu hauek lortzeko, ohiko kaptazio kanpaina burutu da, ikastetxeetan hitzaldiak eskainiz eta ate-ireki jardunaldien bidez. Azken hauen arrakasta nabaria izan da aurtuen (aurrez txosten honetan aipatu den moduan).

Iaz matrikulazio kopuru murrizta lortu zuten zikloak indartu dira kaptazio kanpaina horretan. Nabarmenezkoa, eraikuntza metalikoak indartze aldera, Irungo FICOBAn ospatu den Soldadura alorreko feriaren lehen edizioan parte hartu izana. Bertan Goierri Eskolaren stand propio bat ipini delarik.

Batxilergoari dagokionez, iaz lortu zen hirugarren lerroa mantentzea lortu da (matrikulazio kopurua mantenduz). Datozen ikasturteetan, lerro berri hori egonkortzen saiatuko gara.

Bezeroen arloan, ikasleentzat internazionalizazio programak areagotzeko saiakera ez da gehiegi landu. Ekimenetako bat, Txilera eginiko bidai bat izan da. Goierri Valley elkartearen eskutik, bailarako enprekin batera burututakoa. Bertan, Txileko hainbat hezkuntza erakunderekin burutu ziren bilerak, elkarlanerako aukerak aztertu asmoz.

Bestalde, langile eta langabetuen formazioaren alorrean, gure prestakuntza eskaintza online modalitatean ezartzeko aurrera pausoak gauzatu dira. Eskaintza azaltzeko web gunea martxan da iada eta ikastaroak publizitatzeari ekin zaio.

Goierri Eskolaren zerbitzuen eskaintzaren barruan, Saiakuntza ez-suntsitzailen (SES) zerbitzuen eguneratzea eta merkaturatzearekin jarraitu da, zerbitzu horiek erakusten dituen web orrialdeko gune propio bat baliatuz. Mailing-a burutzerakoan segmentazioa ezartzeko lehen pausoak landu dira eta, lan komertziala areagotu da. Lan komertzial hau, Tkgune ekimenaren barruan kokatu da. Ikastetxea eta enpresen arteko elkarlana bultzatzea helburu duen ekimena. Lan komertzial horretan, SES arloan dugun esperientzia eta baliabideak jakinarazi zaie enpresei.

Kanpamentu teknologikoen inguruan, aurtengo ekitaldia ez da normaltasunez garatu. Ospatu ohi diren hiru asteetatik, bakarra gauzatu da (lehena). Iazko 42 parte-hartzailetik 15ra murriztu izana horren arrazoi. Horren partaidetza murrizta eduki izanaren arrazoiak aztertzerakoan, bailaran antzeko ekimenak egoteari

egotzi zaio. Datorren ikasturtera begira, kanpamentu teknologiko hauen berri aurreratu egingo da (partehartzaile potentzialak bestelako ekimenak lotu aurretik).

Prozesuen arloan, administrazio eta zerbitzuetako alorraren digitalizazioa garatzeko pausoak landu dira. Horren ildotik, bigarren mailakoen matrikulazio prozesua digitalizatu egin da (microsoft-ek eskaintzen dituen baliabideak erabiliz). Horrelako ekintzak hurrengo ikasturteetan ere baliatu nahi dira, prozesuaren kudeaketa efizienteagoa lortu asmoz.

2.3.4. HASIERAKO HEZKUNTZA

22/23 ikasturteko helburuen betetze maila ezberdina izan dugu. Bezeroari hezkuntza integrala emateko asmoarekin ezarritako ekintzak burutu dira. Ekintza horien artean gaitasun sozialak areagotzeko zeharkako konpetentzietan oinarrituko metodologia bultzatu da. Bailerako ikastetxe pare batean, Steam-en oinarritutako tailerrak eraman dira aurrera. Batxilergoko ikasleak izan dira tailer horien dinamizatzaileak. Bestalde Batxilergoko ikasleekin ere, Udako Kanpamendu teknologikoak berreskuratu ditugu. Bertan 7 ikasle aritu dira dinamizatzaile modura.

Martxoak 08rako, emakumearen nazioarteko egunerako dinamika batzuk presatu ziren mikromatxismoaren inguruan. Horretako bideo batzuk ikusi eta debatea talde guztietan bultzatu zelarik.

Abenduaren 03rako, Euskararen egunerako dinamika bat presatu zen Zuretzat zer da euskara? leloarekin. Egun honi oihartzuna ematearren aurreko astean lehiaketa bat osatu, argazki lehiaketa bat burutu eta egunean behin lehiaketan parte hartzea ere bultzatu zen. Euskara bultzatu asmoz, korrikaren egunean ere dinamika bat eraman zen aurrera eta ondoren eskolako 2 kideek korrikako lekukoa eraman zuten.

Beste helburuetako bat berdintasunerantz modu aktiboan aritzea izan da. Erakundean sortu berri den berdintasun planeko ekintzak burutu dira. Alde batetik, Martxoak 06ko emakume langile eguneko dinamika burutu zen eta bestetik Genero Berdintasun formakuntza ikastaroa egin genuen langileok.

Ikasturte honetan metalezko hitzarmenak ekarri dituen formakuntza beharrak ikastetxean txertatu ditugu. Ziklo bakoitzari berea duen ofizioiko ikastaroa eskaini zaiolarik. Horretarako atal tronkaleko 12 orduak, eskolako orduetan txertatu izan dira. Gainontzeko 8 ordu espezifikokoak aldiz eskolako orduetaz kanpo izan dira. Eskolako orduetan atal tronkala eman al izateko, Lan arriskuen prebentzioan homologatu dugu irakasle bat.

- 118 ikasleek bere zikloari dagokion ofizioa atera dute.
- 58k karretila.
- 18k Plataforma igogailua.
- 57k zubi garabia.

Ikasturte amaieran metaleko lan hitzarmenaren errebisio berria plazaratu dute. Ziklo bat amaitzen duten ikasleek, titulu horri lotutako ziurtagiri profesionalari dagokion ofizioak baliozkotua izango ditu. Honek hurrengo ikasturterako gai honen berrikusketa bat eskatzen du.

Bestalde, giza-balioak indartzeko, ekintza ezberdinak berreskuratu ditugu. SOI ihardunaldiak, GOAZEN ORDIZIA, e.a. bezalako ekintzak. SOI 10. Jardunaldiak KONTSUMO ARDURATSU leloa izan du. 24 hitzaldi, tailer izan dira eta bertatik 1600 ikasle pasa dira.

Hezkuntza integraleko beste zutabe bat tutoretzaren ardatza sendotzea da. Alde honetatik irakasle gida bilduma osatzen hasi ginen baina ez diogu jarraipenik eman. Gai hau birplanteatu behar dugu. Ez bere beharra eztabaidan jartzeko asmotan, baizik eta bera gauzatzeko bidea berraztertuz.

Ikasleen zeharkako gaitasunak jorratzeko intentzioarekin, metodologiaren eraldaketa zabaltu dugu. Horrela OLH mailako zikloetan ere hedatu da modulu ezberdinen arteko ikaskuntza aktibo-kolaboratiboa. Esan, eskola mailan homogeneizazio plan bat dugula. 22/23 ikasturtean etapa bakoitzean zenbat erronka, zein momentutan eta gutxi gora behera zenbat iraun behar duten adostu da talde pedagogikoan. Bestalde ebidentziak jasotzeko taula osatu eta berrikusi dugu urtean zehar.

“Aprendizai eta zerbitzu” modalitatean proiektu bat izan dugu, ZUMALAKARREGI museoarekin egon gara lanean. Ormaiztegiko zubia maketatu nahi izan da ikusteko ez gaitasuna duten pertsonak eskuekin zubiaren interpretazio egiteko gaitasuna izan dezaten. Horretarako BEGIRIS elkartearekin ere izan da harremana.

Ikusi denez, 22/23 ikasturteko gaitasunaren helburua iazkoaren tankerakoa izan da.

Azkenik, Ikaslan Fundazioarekin elkarlana indartzeko prozesua doitu zen iaz. Horrela, lan praktika ezberdinak baloratzeko erabiltzen diren txantiloak homogeneizatu ziren eta kalifikazio horiek zuzenean Educamosen sartzeko aplikazioa prestatu zen. Ikasturte honetan erabili da lehen aldiz eta balorazio positiboa da.

2.3.5. LANERAKO ETA ETENGABEKO HEZKUNTZA

Eskaintzaren difusio areagotua burutu da. Honetan, MDKko Jose Mari Alkorta eta Jon Etxezarreta aritu dira enpresei bisitak egiten; era berean, Goierri Valleyko mahai desberdinetan parte hartu dugu eta haiek antolatutako HUB eta gosari aurkezpenetan gure eskaintza aurkeztu. Orduan helburua eskuratu bada ere, oso larri gabilta lanean ari direnei zuzendutako formazioan. Banaketa, hurrengo puntuan ikus daiteke.

Langabetuei zuzendutako formazioari dagokionean emaitzak onak izan dira orokorrean, iaztik zetozen oinarritzko gaitasun digitaleko bi ikastaro eman ditugularik eta deialdi berriko 3 ikastaro. Hala ere, Diseinuko ikastarorako taldea osatzea ez dugula lortu esan beharra dugu.

Online formazioari dagokionean, dena prest dugu martxan hasteko, baina prestaketak ikasturtearen amaieran bukatu ditugu eta horrela ez dugu lortu ikastarorik gauzatzea. 2023-2024erako utzi dugu helburua.

Txiletar ministerioarekin erlazioa mantentzeko ahaleginak egin ditugu. Jose Mari Alkortak Txilera egindako bisita aipatu beharra dugu honetan. Hala ere, Txileko gure informazio eskaerari erantzunda uztailan jakinarazi digunez, “Técnicos para Chile” programa kasurik onenean ere 2025 urtera arte ez da martxan jarriko.

SES arloaren barruan Phased Arrayko bi ikastaro ematea lortu dugu.

Etorkinen beharretara egokitutako formazioari dagokionean, Goiekik bultzatutako Elkar Ekin Lanean proiektu batean ari gara. Horren baitan “oinarritzko konpetentziatutako” ikastaro bat eman nahi izan zen eta ez zen lortu eta horren ordez 60 orduko 4 ikastaro emango ditugu.

Digitalizazioari loturiko eskaintzarik ez dugu garatu. Irakasleek Viroo eta Xpandr inguruneen buruzko formazioa jaso dute, enpresei gure gela digitalak erakutsi dizkiegu, baina ez dugu haien bitartez emandako formazioa izan (salbuespena soldadurako ikasleekin simulatzaileetan egindako ordu urri batzuk).

Goierri Valleyrekin dugun hitzamenen oinarrituta aktibitatea areagotzea lortu da: batetik kudeaketari loturiko pare bat ikastaro eman zaizkie eta bestetik, enpresa-kideei galdetegi berria luzatu zaie eta haien formazio-lehentasunak arakatu ditugu. Hurrengo ikasturtean plangintza berri bat jarriko dugu martxan.



Gaitasunen egiaztatetik eratorritako formazioa ezin izan dugu eskaini, ahalegin guztiak egin baditugu ere, Administrazioak horretarako aukerarik ez digulako eman (ikasturtearen amaieran ikastetxe publiko jakin batzuei soilik eman zien aukera).

Erakundearen digitalizazioaren barnean, METAPOSTA txertatu dugu ez arautuan eta HEZILAN ordezkatu ahal izango duen softwarea arakatzen jardun gara.

Taldeen homogeneousazioa bilatzen jarraitu dugu eta langabetuei emandako 3 ikastaroetatik bitan lortu da (oinarrizko gaitasunetan berriro ere arazoa izan dugu).

Irakasleen sarea sendotu dugula esan ahal dugu, emandako ikastaro guztietarako irakasle aproposak eskuratu baitira. Hala ere, Diseinuko ikastaroa emateko irakasleak topatzeko izandako arazoak ezin ditugu ahaztu.

Hurrengo ikasturterako aurreikuspenei dagokionean, honakoa esan dezakegu:

- Lanbideren deialdiei lotuta:
 - Lanean ari direnei zuzendutako ikastaroetan hasiera hasieratik ikasleak erakarri beharrean gaude, azaroaren 30erako ikastaroen %60ari hasiera ematea nahi badugu.
 - Langabetuei zuzendutako aurreikusitako ikastaro guztiak emateaz gain, Diseinu Mekanikoko ikastaroa ere martxan jarri behar dugu.
- Neurrirako formazioan aktibitatea sendotzea lortu dugu. Gure aktibitatea 1133 ordura eramatea lortu da (iaz 1020). Honen barnean Irizarrentzako kudeaketa ikastaroa errepikatu da eta Goierri Valleyrekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz egindako ikastaroak ere azpimarragarriak dira. Hurrengo ikasturtean bide honetatik jarraitu behar dugu.

2.3.6. BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

Planifikatutako ekintzak modu egokian garatu ziren eta finkatutako helburuak lortu ziren, emaitza barne. Gauzatutako inbertsioak 2022 urtean 177.000 € iritsi ziren erreferentzia 220.000€ zelarik. Kontabilitate prozesua egoki kudeatu da, eta horren ondorioz 2022ko ikuskapen ekonomikoa ongi amaitu da. Deskargua egiteko beharrezkoak izan diren euskarriak diseinatu dira eta baliagarriak izan dira. Sarrera eta gastuei segimendua egin zaie, 2022ko itxiera ikuskatu ostean ekitaldiko emaitza 55.804 € geratu da, honek aurreko ekitaldiarekiko hobekuntza nabarmena suposatzen duelarik.

Aurreikusitako aktibitatearen baitan gastuak eta sarrerak kontuan hartu dira aurrekontua definitzeko. 2023 urterako aurreikusi eta patronatu batzordean abenduan onartu zen emaitza -9.987€koa da.

Aurrekontua definitzeko momentuan, hainbat egoera (Lanbide - langabetu nahiz lanean daudenentzat-, Kontzertuak, etab.) kontuan hartu dira. 2023ko aurrekonturako kontzertu kontzeptupean izango ditugun sarrerak: 4.250.831€ izango dira eta 23/24 ikasturterako, LEHrako aurrekontua 395.000€koa izango dela aurreikusi da.

Pertsonalaren atala 4.811.129€ izango dela aurreikusten da. Zaharberritze kapitulua berriz, mantenurako gastuaren aurrekontua iazko erreferentzia harturik mantendu egin dugu, hau da 250.000€. Bi zatitan banatuta daude: mantenu orokorrerako (125.000€) eta informatika mantenurako (125.000€).

200.000€ partida kontuan hartu da inbertsiotarako. Era berean, Eskola kudeatzeko erabiltzen diren prozesuentzat baliabide ekonomikoak kontsideratu dira %100an. Emaitza erdietsiko dela espero badugu ere, aurrekontuak aktibitate eta sarreren hipotesitan oinarriturik egin direla kontuan hartu beharra dago; betiere aldaketak izan ditzakegu eta, ondorioz, hainbat partiden desbideratzeak izan.



Mantenu informatikoa eta orokorra ongi kudeatzeko NAVISION izeneko aplikazioan, kontuen eskema pertsonalizatuak sortu dira. Eskema hauek kudeatzaileei laguntzeko prestatuta daude. Ekitaldi honetan NAVISION programaren eguneraketa ezarri da: BUSINESS CENTRAL deiturikoa.

Emandako zerbitzuen adostasunari dagokionez, esan, ikuskapen ekonomikoko txostenean oinarriturik, kudeaketa egokia izan dela eta ez direla doikuntzak egin behar izan. Hala ere, oraindik GHEFko patronatu batzordeak ikuskatutako txostena onartzeke dago 2023ko maiatzean izandako hauteskundeen ondorioz, udaletako ordezkari berriak izendatzeko bait daude.

2.3.7. BALIABIDE ETA AKTIBOEN KUDEAKETA

BAK prozesurako jarritako 5 helburu orokorrek ibilbide desberdina izan dute. Hauek izan dira: 1 Goierri Eskolako aktibidade ekonomiko jasangarria izatea ziurtatu, 2 Ikasleak GJH-etan sentsibilizatu eta eskola jasangarritasun eredu bilakatzea, 3 Pertsonen ongizatea bultzatu: arrisku psikosozialak, 4 DIGITALIZAZIOA BAK, 5 BAK prozesuko planean dauden beste helburu batzuk (5.1 ziklo berrien guneen egokitzea, 5.2 bak infor zerbitzuaren erabiltzaileen satisfazioa haunditu, 5.3 control op. Ordezkatu)

Energia kontsumoak murrizteko aurrera pauso batzuk egin dira, auditoria energetikoan oinarrituz, 4 hobekuntza arlo aurkeztu ziren eta horietatik aurrerapauso nabarmenak egin dira dagoeneko:

- Kontratututako potentziaren murriztea: 200 Kw tara jaitsi da muga. Aurreko
- Energia kontsumoaren monitorizazioa: Monitorizazio sistema garatu da, gas aren monitorizazioa egiteko inbertsioak ere burutu dira
- Led argien ezarrera: hauen instalaziorako plan bat definitu da.
- Auto-hornidurarako sistemen ezarrera: aurrekontu desberdinak aztertu dira eta 23/24 ikasturtean 3. Eraikinean eguzki panelak ezarriko dira.

Eraberritutako guneak honakoak izan dira.

- 2105/2104 ziklo berrietarako gelak
- SES Gunea laborategia osatu da
- 3210 Informatika Gela ezarri da
- 2204 /2205 batxilergo talde hazkuntzari erantzuna emateko
- 2014 Enpresa Simulazio Gelan mahai eta aulki berriak ezarri dira

Segurtasun eta ingurumen arloan hobekuntzak egitea

- Quironprevención enpresaren prebentzio-plangintzan aurreikusitako ekintzak gauzatu dira.
- Legionellaren eta isurketen analisiak egin ditu, emaitza negatiboarekin, hau da, lege-mugen barruan.
- 2030 Agendaren eta GJHen gaia lantzen ari den Hetel-eko taldean sartu gara
- Energia-eraginkortasuna hobetzeko aplikazio bat jarri da abian.
- Previtek eta Teknodidaktikarekin batera lanean jarraitu da LAParen prestakuntzan metalaren hitzarmenaren arabera.
- LAPEko ikasgeletan errealitate birtuala txertatzeko proiektu batean gaude, beste ikastetxe eta LUDUSEkin batera.

2.3.8. KOMUNIKAZIOA

LEH-ko ikastaroen publizitatea gauzatzeko kanalak ezarri dira eta publizitatea bera diseinatu eta garatu da.

Ikaslan Fundazioa-rekin kanpo-komunikazio plana diseinatu eta garatu da, Adaki enpresaren aholkularitzarekin. Kudeaketa hori gauzatzeko, bilera sistematikoak burutzen dira hiru erakundeen artean.

Online modalitatean eskaintza berria gauzatzeko eta publizitzeko, komunikazio kanal berriak ezarri dira.

SES alorreko eskaintza areagotu asmoz, bezero potentzialekin komunikazioa landu da.

Datuen babesarekin loturik, langilegoaren artean pildora informatiboak zabaltzeko asmoa ez da gauzatu.

Erakundeak erabiltzen dituen hainbat aplikazio informatiko berritzeari ekin zaion arren, ez da kasu guztietan gauzatzerik lortu.

2.3.9. BERRIKUNTZA

Aipagarriak dira ondorengo helburuetan izan dugun garapena:

Kanpo dirulaguntzak areagotu berrikuntzari dagokionean.

Nodo fabrikazio aurreratua (Juanjo Igarzabal) 9.730€

Beste hainbat saiakera ere egin dira diru laguntzak areagotzeko:

CAIXABANK:

- Dualiza: "xpandr proiektua aurkeztu da ez digute onartu" EZ DIGUTE ONARTU
- Orientación activa: "Goierri Azoka (feria de proyectos de Goierri)" 2.500€

KUTXA:

"Kutxa fundazioa: "Elkarlanerako ingurune balioanitzdun adimenduna" proiektua aurkeztu da eta 20.000€ onartu dizkigute, aurtengo ikasturtean dagoeneko %75 a eman digutelarik 15.000 €.

- proiektua aurkeztu eta onartu da 20.000€

HEZKUNTZA SAILA

- Hezkuntza saileko 4.0 deialdi berezia ra aurkeztu gera eta memoria honen idazketa uanean oraindik ez da ebazpenik atera.

MINISTERIO DE EDUCACION Y FORMACIÓN PROFESIONAL

5 proiektu onartu ziren eta 21/22 ikasturtean abiarazi dira, 22/23 ikasturteko abuzturarte landuko diren proiektuak dira, bakoitzaren garapenerako 50.000€ lortu dira, guztira 150.000€



3. BEZEROENGANAKO EMAITZAK

3.1. HEZKUNTZA ARAUTUA

3.1.1. MATRIKULAZIOAREN EMAITZAK

Matrikulazioa itxirik, aurreikusitako talde guztiak eratu ziren.

3.1.2. HEZKUNTZA ARAUTUKO EMAITZAK

Ondorengo taulak, hezkuntza arautuko talde bakoitzean lorturiko emaitzak bildu ditu:

		Ikasle Kopurua	Titulatu 2º Promociona 1º	FCTra iraila	Errepikatu	Kanpoan geratu 4 deialdi agortuta	BAJA	Promozionatuen %-a
OLH	1MEK1	12	11	-	1	0	0	91,7%
	1ELM1	15	12	-	3	0	0	80,0%
	1KA1	15	8	-	2	0	5	53,3%
	1SU1	13	8	-	4	0	1	61,5%
	2MEK1	12	6	0	4	0	0	58,3%
	2ELM1	10	7	0	1	0	0	80,0%
	2KA1	10	9	0	0	0	0	100,0%
	2SU1	6	5	0	1	0	0	83,3%
ERDI MAILA	1ME2	24	16	-	7	1	4	66,7%
	1SG2	25	16	-	8	1	1	64,0%
	1PA2	18	14	-	3	1	0	77,8%
	1MK2	23	15	-	8	0	4	65,2%
	2ME2	20	18	0	0	0	0	100,0%
	2SG2	13	4	2	6	0	0	53,8%
	2PA2	12	7	4	0	0	0	100,0%
	2MK2	25	16	2	6	0	0	76,0%

		Ikasle Kopurua	Titulatu 2º Promociona 1º	FCTra	Errepikatu	Kanpoan geratu 4 deialdi agortuta	BAJA	Promozionatuen %-a
GOI MAILA	1AF3	24	16	-	8	0	4	66,7%
	1MK3	25	23	-	2		1	92,0%
	1DF3	23	18	-	5	0	2	78,3%
	1AR3	22	16	-	6	0	5	72,7%
	1MT3	15	12	-	3	0	1	80,0%
	1FM3A	24	20	-	4	0	0	83,3%
	1FM3B	24	18	-	6	0	0	75,0%
	2AF3	15	11	1	2	0	0	86,7%
	2MK3	23	16	6	1	0	0	95,7%
	2DF3	16	15	0	0	0	0	100,0%
	2AR3	16	10	1	0	0	0	100,0%
	2MT3	11	8	0	2	0	0	81,8%
	2FM3A	21	13	0	4	1	0	76,2%
	2FM3B	22	16	5	0	0	0	100,0%

		Ikasle Kopurua	Titulatu 2º Promociona 1º	Errepikatu	BAJA	Promozionatuen %-a
BATXI	1BT1	27	24	3	3	88,9%
	1BT2	30	29	1	1	96,7%
	1BT3	24	21	3	0	87,5%
	2BT1	26	23	3	0	88,5%
	2BT2	25	21	4	0	84,0%

3.1.3. GREBAK

Greba eguna bakarra izan da ikasturte honetan.

2022eko irailaren 23a: paroa 10tik aurrera, klima aldaketa saiesteko.


3.1.4. SATISFAZIOA

3.1.4.1. HEZKUNTZA ARAUTUKO IKASLEEN SATISFAZIOA

Laburpen modura, ondorengo taulak hezkuntza arautuko ikasleei egindako inkestaren ondorioz, hobekien puntuaturiko 5 atalak eta lehentasun handieneko 5 hobetze arloak bildu ditu.

Hobekuntza Arloak	03.- Eskolatik eskolaz kanpoko ekintzei buruzko (kirolak, ekintza kulturalak,...) informazioa jasotzen dut.	3,34
	10.- Salmenta makinei buruzko satisfazioa.	3,75
	04.- Eskolak emandako lan-poltsa eta langai zerbitzuak egokiak dira.	3,78
	05.- Eskolak FCT bitartez enpresetan lan praktikak egiteko ematen didan aukera egokia da.	3,83
	06.- Eskolak ikaslan bitartez borondatzeko praktikak egiteko ematen didan aukera egokia da.	3,83
Alde Sendoak	12.- Liburutegi zerbitzua egokia da.	4,13
	13.- Idazkaritza zerbitzua (harrera, efizientzia,...) egokia da.	4,09
	17.- Aparkalekuak egokiak dira.	4,05
	20.- Eskola honetan zure ikasketak amaituz gero, ikasketak jarraitzeko aukera egokiak izango dituzu (soilik batxilergoa)	3,99
	02.- Geletako altzariak (tailerrak, laborategiak, e.a.) egokiak dira.	3,98

Hezkuntza arautuko ikasleen satisfazioa ikastetxe honetan ikasteagatik 3,98/5 izan da eta satisfazio orokorra (item guztien batezbestekoa) 3.9/5 izan da, honako banaketa eman delarik:



Bestetik, eta ikuspegi pedagogikoari dagokionez, hiruhilero burututako inkestetan, honako hauek izan dira lorturiko emaitzak:


01. Eskolan zailtasunen bat baldin badut, badut norengana jo	3,97
02. Irakaslearen azalpenetan lan munduari buruzko erreferentziak egiten dira	3,92

03. Eskolatik arlo akademikoaz (ordutegiak, azterketak, notak,...) nahikoa informazio jasotzen dut.	4,03
04. Zer iruditzen zaizkizu eginiko eskolako ekintza osagarriak (enpresetara bisitak, hitzaldiak, odol-emate saioak?)	3,99
05. Gelan daukagun ikas giroa	4,05
06. Ikasleen arteko harremana gelan	4,23
07. Ikasleen arteko harremana eskolan	4,09
08. Eskola barruko garbitasuna	4,08
09. Eskolaz kanpoko garbitasuna	3,98
10. Zerbitzu informatikoarekiko nire satisfazioa	3,54
11. Tutoritzarekiko satisfazioa	3,97
12. Gaien artean loturarik badago.	4,02

3.1.4.2. FAMILIEN SATISFAZIOA

Soilik 18 urtez beherako gurasoei pasatzen zaie inkesta. Microsoft Forms erabiliz lortu dira hauek. Guztira 106 familiak bete dute.

Beraien batez besteko satisfazioa **4,32/5**-etik eta Eskolaren balorazio globala **4,46/5** izan delarik. Bestetik, Eskola gomendatuko luketen gurasoen ehunekoa **%100**-koa da. Inkestako atal bakoitzeko emaitzak honakoak dira:



3.1.5. LANEAN TXERTATZEA

21/22 ikasturtean, Lanbide Heziketako ikasketak amaitutako ikasleen kopurua 202-koa izan da. Aurreko ikasturtearekiko konparaketa egitean datuak antzekoak direla ikusi daiteke. Laneratze kopurua zerbait handitu egin da baina ikasketak amaitu dituztenen kopurua ere handiagoa denez, aldea ez da hainbestekoa. Ikasten jarraituko dutenen kopurua ere berdintsu mantendu da orokorrean, goi mailan beherakada txiki bat badago ere, erdi mailako gorakadarekin berdindu da. Portzentaiaetan emanda, % 54 lanean, % 35 ikasten eta % 11 langabezia.

ZIKLOA	IKASTEN	LANEAN	LANGABEZIAN EDO EZINEAN	GUZTIRA
AF3	3	7	2	12
DF3	7	9	0	16
FM3(A)	5	9	2	16
FM3(B)	6	9	2	17
MT3	2	4	3	9
MK3	4	10	2	16
AR3	4	11	0	15
2MK2	16	1	0	17
ME2	18	1	1	20
SG2	4	0	0	4
2PA2	7	0	1	8
GUZTIRA	76	61	13	150
	%50.7	%40.7	%8.6	

3.2. HEZKUNTZA EZ ARAUTUA

3.2.1. KURTSOEN KOPURUA

2021-22 kurtsoan denetara 49 ikastaro eman ziren, kurtso hauetan 363 ikasle izan zirelarik eta guzti honek 3586 ordu suposatu du. 1.2. puntuko taulak gure eskaintzako kurtsoak eta haien gauzatzea jaso badu ere, ondorengo taulak haiez gain enpresentzako neurrira egindako kurtsoak eta Lanerako Hezkuntzari loturikoak jaso ditu.

ENPRESA IKASTAROAK 2022/2023	Orduak	
Soldadura MAG (Ingeteam Indar Machines, S.A.)	20	22/09/30 - 22/10/06
Partículas Magnéticas nivel I (CAF, S.A.)	24	22/10/03 - 23/01/12
Electricidad para mecánicos (CAF, S.A.)	380	22/10/10 - 22/12/23
Electricidad básica (Pandrol Iberica, S.A.U.)	20	22/10/17 - 22/11/03
3D Experience (CAF, S.A.)	40	22/10/24 - 22/11/15
Presupuestos anuales y plan de tesorería (Goierri Valley)	5	22/11/04 - 22/11/04
Preparación del "Exámen general" de Partículas Magnéticas (Xubi Engranajes, S.L.)	4	22/11/23 - 22/11/23
Gestión de costes (Goierri Valley)	5	22/12/02 - 22/12/02
Recertificación de Ultrasonidos (Industrial Barranquesa, S.A. – Sakana, S.Coop.)	24	23/01/10 - 23/01/13
Formación Omniscan X3 (Xubi Engranajes, S.L.)	16	23/01/16 - 23/03/20
Ultrasonidos nivel I (CAF, S.A.)	64	23/01/16 - 23/01/30
Competencias digitales básicas (Goieki)	55	23/02/21 - 23/03/31
Iniciación a la soldadura (Industrias Metálicas Oñaz, S.L.)	20	23/03/06 - 23/03/10
Recertificación de Ultrasonidos (CAF, S.A.)	30	23/03/13 - 23/03/17
Ultrasonidos Phased Array (Fundación AIC Automotive Intelligence Center)	32	23/03/20 - 23/03/29
Recertificación de Inspección Visual (Matz-Erreka, S.Coop.)	8	23/03/22 - 23/03/23
Recertificación de Partículas Magnéticas (CAF, S.A. – Alcorta Mendizabal y Cia, S.A. – Xubi Engranajes, S.L. – Metal Performers, S.A.)	10	23/03/23 - 23/03/24
Requisitos de calidad (Jaso Equipos de Obras)	20	23/04/17 - 23/04/21
Gestión de calidad (Irizar, S.Coop.)	75	23/04/18 - 23/07/04
Hidráulica (CAF Power & Automation)	38	23/04/18 - 23/05/12
Sopletista en montaje (CAF, S.A.)	5	23/04/21 - 23/04/21
Requisitos de calidad en soldadura (Jaso Equipos de Obras)	20	23/04/24 - 23/04/24
Ultrasonidos nivel I (CAF, S.A.)	64	23/04/24 - 23/05/11

Sopletista en montaje (CAF, S.A.)	5	23/04/28 - 23/04/28
Partículas Magnéticas nivel I (CIE Legazpi, S.A.)	20	23/05/04 - 23/05/17
Sopletista en montaje (CAF, S.A.)	5	23/05/05 - 23/05/05
3D Experience (CAF, S.A.)	40	23/05/29 - 23/06/09
Recertificación de Ultrasonidos (CAF, S.A.)	15	23/06/06 - 23/06/08
Competencias digitales para el emprendizaje (Goieki)	60	23/06/06 - 23/07/07
Recertificación de Inspección Visual (Ampo, S.Coop.)	4	23/06/08 - 23/06/09
Oxicorte (Sakana, S.Coop.)	4	23/07/27 - 23/07/27

LANBIDE ETA BESTE IKASTAROAK 2022-2023		
FCOI14: INICIACIÓN A LA INFORMÁTICA Y COMPETENCIAS DIGITALES BÁSICAS PARA EL EMPLEO	40	22/10/18 - 22/11/07
FCOI14: INICIACIÓN A LA INFORMÁTICA Y COMPETENCIAS DIGITALES BÁSICAS PARA EL EMPLEO	40	22/11/28 - 22/12/21
FMEC0210: SOLDADURA OXIGÁS Y SOLDADURA MIG/MAG	560	23/01/30 - 23/07/04
FCOV27: COMPETENCIAS BÁSICAS EN LENGUA CASTELLANA Y MATEMÁTICAS (LANBIDE)	240	23/02/06 - 23/05/16
ADGD0108 : GESTIÓN CONTABLE Y GESTIÓN ADMINISTRATIVA PARA AUDITORÍA (LANBIDE)	550	23/02/13 - 23/07/10


3.2.2. HEZKUNTZA EZ ARAUTUKO IKASLEEN SATISFAZIOA

Hezkuntza ez arautuko ikasleen satisfazioa **9,01/10**-ekiko izan da batatz bestean eta balio hau **9,41/10**-era igo da irakaslearekiko duten satisfazioari dagokionez.

4. PERTSONENGANAKO EMAITZAK

4.1. PERTSONEN SATISFAZIOA

Pertsonalari egindako inkestan satisfazio indize orokorra 4,05 / 5 izan zen, honako banaketarekin:



Ikastetxean lan egiteagatik satisfazio maila 4,42 / 5 izan zen. Hobekuntza arlo nagusiak honako hauek dira:

Arloa	Batezbestekoa
Internet / korreo elektronikoko zerbitzua bikaina da.	2.44
Mantenimendu informatikoak asetzen nau	2.69
Nire betebeharrak burutzeko dudan denbora egokia da	3.20
Lan ordutegiak asetzen nau	3.56
Orokorrean, eskolako komunikazioa (sistemak eta edukiak) egokia da	3.69

Hobekien baloratutako gaiak, berriz, honako hauek dira:

Arloa	Batezbestekoa
Nire eginkizunen jabe eta arduradun sentitzen naiz.	4,58
Kudeaketa Unitate bakoitzak bere kideen artean lanak (kudeaketa, ikasgaiak, moduluak, ez arautua...) banatzearekin ados nago.	4,58
Fotokopia zerbitzuak asetzen nau.	4,49
Kudeaketa Unitate bakoitzak bere kideen artean lanak (kudeaketa, ikasgaiak, moduluak, ez arautua...) banatzearekin ados nago.	4,49
Eskolako lankideekiko harremanak eta giroa asetzen nau.	4,47

Bestetik, honako bajak gertatu dira kurtsoan zehar:

Gaixotasuna		Amatasuna/Aitatasuna		Lan – istripuaz		Istripu ez-laborala	
8	158 egun	2	154 egun	1	44 egun	0	0 egun

5. KONTSEILU SOZIALA ETA ESKOLA KONTSEILUA

Ikasturte honetan ez dugu Zentru Integratuaren Kontseilu sozialik izan (Batxilergoko Eskola Kontseilua bai). Kurtso hasieran, Kontseilu Soziala eratzeko prozedura martxan genuelarik, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik mezu bat jaso genuen, Itunpeko Ikastetxeen Kontseilu Soziala arautuko duen Dekretoa atera arte kontseilua ez eratzeko adieraziz.

Ikuskaritzarekin ere kontrastatu genuen eta Dekretuaren zai egoteko adierazi zigun ere.

Ikasturtean zehar Dekretu hori argitaratu ez denez, ez dugu Zentru Integratuaren Kontseilu Soziala izan.

Batxilergoari dagokionez, bilerak hauek izan dira:

Bileraren data	Hartutako erabakiak
2022ko Abenduaren 22a,	Gai ordena: 1. Eskola Kontseiluko kide berrien aurkezpena berritu ondoren. 2. Aurreko bileraren akta onartu. 3. 2021-22 Ikasturtearen Memoria aurkeztu. 4. 2022-23 Urteko Planaren aurkezpena. 5. Kudeaketa sistemari buruzko berriak. 6. Norberak lekarkeena.
2023eko Ekainaren 13a,	Gai ordena: 1. Aurreko bileraren akta onartu. 2. 2022-23 Kudeaketa Planaren itxiera. 3. Kudeaketa sistemari buruzko berriak. 4. 2023-24 ikasturteko egutegiaren onarpena. 5. 2023-24 ikasturteko kuoten onarpena. 6. Norberak lekarkeena.

6. ORIENTAZIO ZERBITZUA

2023/01/01etik 2023/09/23-erako enplegu zerbitzuaren datuak ondorengoak dira:

6.1 LANBIDE - KOLOKAZIOA

➤ CURRICULUM ALDAKETAK	560
➤ ESKAINTZAK	182
➤ LANPOSTUAK	214

6.2 ENPLEGU ORIENTAZIOKO EUSKAL ZERBITZUA (LANBIDE – ORIENTAZIOA)

- ORIENTAZIOKO EKINTZAK **285** (pertsona bakoitzarekin batezbesteko 3 elkarriketa) (banakako ekintzak).

- ORIENTAZIOKO EKINTZAK TALDEKA, guztira **7 tailer, 56 partehartzaile** (3 ordutako iraupenarekin). TALDEKA - TAILERRAK .

TAILERRAK	ENPLEGU ZENTRUA	ORIENTAZIOA	GUZTIRA	PARTEHARTZAILEAK	MEDIA
LAN BILAKETAN HEDABIDEAK, IKT ETA LAN BILAKETA, ENPLEGU WEB GUNEAK	3	3	6	24	4-5
CURRICULUM VITAE ZEIN DA EGOKIENA?	1	1	2	8	4
HEZIKETA AUKERAK ZIURTAGIRI PROFESIONALA.	1	1	2	8	4-5
Aukeraketa prozesu probak; elkarrizketa pertsonala, talde dinamika test psikoteknikoak	3	3	4	24	5

6.3 ENPLEGU ZENTROA (2021/01/01 – 2021/09/14)

- PERTSONA KOPURUA: 825

(pertsona batzuk behin baino gehiago etortzen dira)

6.4 INCORPORA PROGRAMA (2021/01/01 -2021/09/14)

- | | |
|--|----|
| ➤ LANA BILATZEKO ZAILTASUNAK DITUEN PERTSONA KOPURUA | 93 |
| ➤ LAN ESKAINTZAK | 39 |
| ➤ LANPOSTUAK | 42 |
| ➤ ENPRESETARA BISITAK | 40 |

6.5 LEHENTASUNEZKO KOLEKTIBOAK LAN MUNDUAN SARTZEKO DITUZTEN ZAILTASUNENGATIK

- **ATZERRITARRAK**; bere kabuz etortzen direnak edota eskualdeko zenbait Udaletxetako gizarte zerbitzuetatik bidalitakoak. Talde ezberdinak dauzkagu.
- Dokumentazioarekin, ikasketarik gabe eta lan esperientzia gutxirekin. Egoeran larrian bai arlo ekonomikoan baita arlo sozialean.
 - Ikasketa maila altua eta lan esperientziarekin, baina ikasketak homologatu gabe dauzkatenak.
 - Dokumentaziorik gabe.

- **LANBIDE BEASAINDIK**, orientazioko ekintzak martxan jartzeko asmotan bideratutako pertsonak: Gehienbat “RGI eta PCV” laguntzak jasotzen dituzten pertsonak bideratu dizkigute. Egoera larrian dauden pertsonak dira, bai bere egoera ekonomikoarengatik, bai eta zailtasun handiak dituztelako lana bilatzeko garaian ere (ikasketa maila baxua, esperientzia bakarra kualifikazio gutxiko lanetan, teknologia berrietara egokitzeko zailtasun haundiekin...)
- **UDALETXETAKO ZERBITZU SOZIALETATIK BIDERATUTAKO PERTSONAK**: udaletxetako gizarte laguntzaileen bitartez diru laguntzak jasotzen ari diren pertsonak, egoera larrian, ikasketa maila baxua eta lan esperientzia gutxi dute.
- **45 URTETIK GORAKO PERTSONAK**: kualifikazio gutxiarekin eta bere bizitza osoan zehar enpresa batean lanean aritu direnak eta bapatean langabezian gelditu direnak, ez dakite nondik hasi lana bilatzen
- **LANGABEZIAN DENBORAN LUZEN DAUDEN EMAKUMEAK**, ikasketak dituzten emakumeak, baina urteak langabezian daramatenak bere familia zaintzen egon direlako eta orain lan merkatura bueltatu nahi dutenak
- **LANERAKO HEZIKETA EGITEN DUTENAK**: Langabetuei bideratutako ikastaroak egiten dituzten pertsonak, ikastaro hauek Lanbideren bitartez egiten dira eta behin heziketa bukatzen dutenean enplegu zerbitzura etortzen dira zein lan aukerak dituzten aztertzeko.
- **GAZTEAK IKASKETA MAILA BAJUAREKIN**: 30 urtetik beherako gazteak ikasketarik gabe edo oinarritzko ikasketekin, lana bilatzeko garaian zailtasun handiak dituzte.
- **GAZTEAK**: Kimika, Gizarte eta Humanitate zientzietan diplomadunak eta ikasketa horietan lizentziatutako pertsonak.
- **EMAKUMEAK**: ikasketarik gabe, lan esperientzia gutxiarekin edo Goierrri mailan gutxi eskatzen diren profilekin.
- **BERAIEN ENPRESETAN IZANDAKO KRISIAK BIDERATUTAKO PERTSONAK**: Bizitza guztian lanean egon direnak eta orain lanik gabe gelditu direnak: ERE, plantilla murrizketa, enpresen itxierak.

Bestetik, honako hauek ere hurbiltzen dira Enplegu Zerbitzura orientazio/lan bila:

- **OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA BUKATUTAKO IKASLEAK**: Behin ikasketak amaitzen dituztenean Enplegu Zerbitzura gerturatzen dira zein aukerak dituzten aztertzeko bai enplegu alorrean edota heziketa alorrean.
- **ZIKLOETAKO IKASLEAK**: Erdi mailako eta goi mailako zikloak bukatzen dituzten ikasleak bai Goierrri Eskolan baita beste ikastetxeetan ikasitakoak. Behin zikloa amaitu eta gero, lanik aurkitzen ez dutenak Enplegu Zerbitzura gerturatzen dira zein aukerak dituzten aztertzeko.
- **GRADUKO INGENERITZA AMAITUTAKO IKASLEAK**: Ikasketak amaitzean daudenean Enplegu Zerbitzura etortzen dira zein aukerak dituzten aztertzeko bai heziketa atalean bai lan aukerak.

